**12etan** Esku pilota finalak haur ttikien mailan eta segidan bertsolariak eta ahare apostua; **2etan** zikiro-jatea.
Egunero arratsalde eta gauez dantzaldia JATORekin eta txaranga.


MUGIKA

# LEITZA

**Abuztuak 4, 10, 11, 12, 13, 14 eta 15ean**

**Igandea 4:**
**Umeen eguna**
Diana, zaldi txikiak, Meza, haur jokoak, txirrindulariak, dantzari txikiak, trikitilariak... Dantzaldia HARITZArekin
**Larunbata 10:**
Txupinazoa eta arratsaldez txirrindulariak; gauez dantzaldia GAUBELArekin.
**Igandea 11:**
Diana, entzierroa, Meza eta ezpatadantzariak; arratsaldez zezenak, erraldoiak eta pilota partidoak; gauez J. ANAIAK.

BIBI Janaridenda
JANARI IZOZTUAK
Besta Onak pasa
Karrika Nagusia, Tfnoa: 45 09 74 – SUNBILLA

GAZTAÑAGA TABERNA
Bokadilloak eta pintxoak
Tfnoa: 61 07 08 – LEITZA

MARIBEL JANARIDENDA
Besta ederrak pasa
Leku Eder, Tfnoa: 45 05 95 – SUNBILLA

OIALDE OSTATUA
Pintxoak eta Kaxuelak
Huarte Gotzaia, Tfnoa: 51 00 77 – LEITZA

LIZUN
GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

TXOKO OSTATUA
Jatexea eta pentsioa
Jai zoriontsuak pasa!!
Huarte Gotzaia, Tfnoa: 51 00 77 – LEITZA

BELARRA
JANARIDENDA ❁ KOSMETIKOAK
BELARDIETETIKA.
Elbarren 35, Tfnoa: 510192 – LEITZA

LEITZARRA TABERNA
Ongi etorri kanpokoei
Ongi pasa bertakoei
Pesta zoriontsuak!!

**Astelehena 12:**
Diana, entzierroa eta banda; arratsaldez zezenak eta dantzariak; gauez J. ANAIAK.
**Asteartea 13:**
Diana, entzierroa eta Herri Kirolak; arratsaldez zezenak, magoa eta pilotari profesionalak; gauez J. ANAIAKekin.
**Asteazkena 14:**
Diana, entzierroa, bertsolariak eta sagardo lehiaketa; arratsaldez zezenak eta Kukubiltxo antzerki taldea; dantzaldia, ARKAITZekin.
**Ortzeguna 15:**
Diana, entzierroa eta futbola; 2etan bazkaria Aurrerako bazkideentzat; arratsaldez entzierroa eta ingurutxoa; gauez GAURKO BERRIrekin.



JOXE




*Berako Bestak* *GOIKO Argazkia*

Guretzat hain bereziak diren egun hauetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu

**Besta Zoriontsuak!**

CAN

NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

# Jende aunitz Baztandarren Biltzarraren edizio honetan

## Almandozko orga izan zen lehen saria eskuratu zuena

JOSEBA I.

Berez ekitaldiak larunbat arratsean izan zuen hasiera Catalunyako Lliça d'Amunt dantza taldea, Herri Kirolak, folk, rock eta berbena musika taldeen aktuazioarekin. Halere, ezin da ukatu igandeko ekitaldiak biltzen duela, dudarik gabe, Baztandarren Biltzarra bestaren izateko arrazoia.

### Tradizioaren erreferentziak nagusi

Desfilean, aurtengoan 12 herritako orgek hartu zuten parte; Almandotz, Berroeta, Anitz, Ziga, Oronotz, Arraiotz, Irurita, Gartzain, Elizondo, Amaiur, Arizkun eta Erratzukoak eta hauekin batera herri zehatz batekoak ez diren bertze bi: Gestorak eta Baztango Beltzak taldeek aurkeztutakoak. Lehen saria, aurtengoan 30.000 pzta eta oroitgarria, Almandozko orgak irabazi zuen. Honek, gurdi eta oinezkoen bitartez, Santio bideko erromesen antzespena eskeintzen zuen, garai hartako jazkerak simulatzen zuten hainbat almandoztarren laguntzarekin. Bigarrena, 20.000 pzta eta oroitgarria, Anitz eta Amaiurkoeentzat (enpate. Ohitura den bezala, orgen tartean musika eta dantza taldeak ibili ziren.

### Balleko Etxeak parte hartu zuen

Azkenekotan ez bazen horrelakorik gertatzen ere, aurtengoan Baztango Udalbatzak ofizialki parte hartu du ospakizunetan eta Balleko alkatea den Patxi Oiartzabal izan da ospakizunaren buru. Aldiberean, Balleko Etxeko ateak zabalik zeuden eta, egunari ofizialtasun kutsua emanez, lau bandera balkoian.

### 1.600 bazkari

Bazkalondoan antolatzaileek ezagutzerat eman zutenez, aurtengo edizioan 1.600 bazkari eman ziren; horietatik zenbait ordaindu gabe sartuak. Ez da harritzekoa, bertzalde, ordaindu zutenen artean, bazkariaren exkasiaz kexu egotea, ez horixe!

### Felix Iriarteri omenaldia

*"Urtero-urtero, hutsik egin gabe"* besta honetan parte hartzeagatik eta urteotan egindako lanagatik omendu zuten Arizkungo atabalaria.




*Lehen saria, Almandozko orgak eskuratu zuen. Bertan, gurdi eta oinezkoen bitartez, Belateko ermitara eta Santio bideko erromesen antzespena eskeintzen zen, garai hartako jazkerekin eta guzi.*



ONDIKOL

*Aurtengoan, azkeneko urteotan ez bazen horrelakorik gertatzen ere, Baztango Udal Gorporazioak ofizialki parte hartu du Baztandarren Biltzarraren ospakizunetan, Balleko Etxeko ateak jandeari zabalduz.*

## ZUGARRAMURDI

# Eliza garbitzeko boluntarioak

MARGARI eta KORO

Elizarat gatean beti garbi eta apaindua dagoela atxematen dugu, eta hori herriko emakume talde bati esker da. Orain arte hamasei emakumek (beren borondatez) izena emana zuten eliza garbitzeko zerrenda batean. Gero, zerrenda hori puskatu egiten zen bi taldetan eta zortzi batean eta zortzi bertzean, hilabetero, elizaren garbitasuna egiten dute. Azkenotan talde bakoitzatik lan hau egiterat bi edo hiru joan ezin direnak daudenez, zerrendatik beren izena ekentzerat gonbidatuak daude eta aldiberean, hasi nahi dutenak beren izena ematera, horrela, talde berriak egin ahal izanen direlarik. Bai izena emateko eta bai ekentzeko, Arburuko Mari Antoniri erran behar zaio.

## Bestetako bilera

Gazteak bestak prestatzeko egin duten bileretan erabaki denez, bertze urteetatik bi gauza aldatuko dira: Bestak bezperako gauean hasi beharrean eguerdian hastea eta ahatejokoa 16ra saindatzea.


*Zugarramurdiko eliza*

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
MERKEALDIAK TELETAN

ZUNZARREN
Gestoria
Allianz Ras Aseguruak
Bidai Agentzia
Tfnoa: 45 22 93
Amaiur Gaztelua 2
31700 ELIZONDO

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK
Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO

JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza


BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
121 errepide nazionala, 54. km
Tfnoa: 45 23 74 – IRURITA
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon
• Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa
Tfnoa.: 58 01 55 – Santiago 40
ELIZONDO
Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ
ERREBELATUAK
ditugu

URDAZUBI

# Miguel eta Zelestinak diamante eztaiak ospatu zituzten

ALIZIA OLAIZOLA

Aipatu ginuen bezala orain dela hilabete pare bat Miguel Sagatibeltza eta Zelestina Gaztañagak hirutanogei urte dituzte ezkondurik. Ospatzeko, joan den hilabetean elgarretaratu ziren beren familiarekin, guzira 30 lagun elkartuz bazkarian, Almandotzen. Egun atsegina pasatu omen zuten.

## Jantzigintza ikastaroaren bukaeran afaria

Ikastaroari joan den irailean eman zitzaion hasiera eta Anastasi Bidart izan da irakaslea. Urdazubi, Zugarramurdi eta Ainhoako 15 emakumek parte hartu dute, gehienak urdazubitarrak izanik, astean bi egunez eta arratsaldeko 2,30etatik 5etara bilduz. Ikastaroari behar bezalako bukaera emateko, afaria antolatu zuten Menta Jatetxean.

## Igeri ikasterat

Joan den urtean egin zuten bezala, aurten ere haurrek Elizondoko igerilekura joaten ibili dira uztailan, igerian hobekiago ikasteko eta bidenabar ongi pasatzeko. Silvia Olaizola, 10 urteko neskatxa, aurten ere kolonietan izana da Errioxa aldean eta datorren urtean berriro joateko prest etorri da.

## Bisitari aunitz

Aunitz dira bai herrian, zein logelak alokatzen dituzten etxeetara, eta baita Ameriketatik beren senideei bisita egiterat, udapasa etorri direnak. Dantxarineako kanpalekua ere kanpotarrez betetzen ari da, gustora etortzen bait dira turistak gure herrirat.



## Onddoak

Eguraldi nahasi hauekin onddo batzuk atera dira, baina ez halere, bertze urtetan bezala. Galdetu bertzenaz Landibarko Fermini.

Zure publizitatea 4.600 etxetara zabaldu nahi baduzu, deitu 631188ra
ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

OSKORRI
LIBURUDENDA
Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

ARROPA DENDA
MERCERIA
FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS
Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

G.M.G.
GAMARGA S.A.
MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK
121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea
Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA
✔ Sukalde eta komunetarako entzimerak
✔ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
✔ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

FZ
FOTO ZALDUA
Argazkiak, Bideoa, Markoak
Zure argazkiak berehala errebelatuak eta gainera profesionalen kalitate eta kolorearekin
KONPARA ITZAZU!!
Elizondo Tf: 58 04 91
Doneztebe Tf: 45 03 64

## ZUBIETA

# Euskaldun berriez bete da herria

JON ETA JAIONE

Aurretik barkamenak eskatu nahi genituzke, batez ere Zubitarrei, aurreko alean herriko berririk agertzen ez zelako, denboraren arazoak izan genituen eta.

### Euskaldun berriak

Espero genuen bezala, Zubieta euskaldun berriez beterik dago, hau da, euskara ikastera eta praktikatzera hainbat etxeetara etorri den jendeaz. Espero dugu euskara aunitz ikas eta praktika dezaten, eta heldu den urtean berriro ere etortzea. Uztailan etorri zirenak behintzat oso gustora pasatu zuten hilabetea, eta ea abuztuan etorriko direnak ere berdin pasatzen duten, Ama Birjinak harrapatuko dituzte eta...



### Usoak

Orain dela gutti, Zubietako hainbat uso hil egin zitzaigun, zeren kabriñak usoak harrapatu eta jan egiten omen dituzte, hauen lumak bakarrik utzi arte. Martuzeneko eta Azkateko usoei hauxe bera gertatu zaie.

### Herriko bestak!!!

Bestak gainean ditugu...!!! Programaren berri hurrengo alean izanen badugu ere, gaueko musikariak zein izanen diren aipatuko dugu:

Asteazkena, 14, **Modesto**, ostegunean (15) **Gau-pasa**, ostiralean (16) **Joselu Anaiak**, eta larunbatean (17) eta igandean (18) **Izan** taldearekin izanen dira aurtengo dantzaldiak. Ongi pasa!

## SARA

# Kantu, kanta, kantore...

OLHAIN ELKARTEA

Uztailaren 18an iragan zen Uztaritzen Euskal kultur erakundearen geletan, *"Ikusten duzu goizean"* diskaren aintzin aurkezpena. 28 bat dira hortan parte hartzen dutenak eta haietan ospetsuenetarik ere: Niko Etxart, Anje Duhalde, Peio eta Pantxoa, Jojo Bordagaray... Lan guziaren zuzendari dugu Mixel Ducau. Diska hau heldu den Urriaren 12an agertuko da ofizialki, Sarako elizan ospatuko den kantaldiaren karietara.



### Pilota emaitzak

Esku uska errebotean, arinetan, Errandonea eta Chaparteguik Euskal Herriko ligan, Aiherrakoen aurka galtzen zuten finala 16.etan. 14-15 urtekoak, Elizalde eta Iriartek final 16.etan galtzen zuten, Barneise eta Barnetchek Euskal Herriko ligan finala 8. galtzen zuten. 16-17 urtekoetan, Mariluz eta Etcheverryk ligako erdi finaletan Uztaritzeren aurka galtzen zuten. Aldiz, bikote hunek berak Uztailaren 21ean Milafrankako errebotean, Senpereren aurka irabazten zuen Frantziako finala laurdenetan. Luzean berriz, junior mailan, Mariluz, Mascotena bi anaiak, Igoa eta Dagerrek Euskal Herriko ligaren finala galdu zuten, Garazin.

## ARESO



JUANA MARI

Herriak ez zuen ongi apaindutako zabortegirik baina orain dela hilabete batzuk udalak konpondu zuen arazoa, biltegiak banatu bait zituzten herri guztian, eta zerbitzu honek oso ongi funzionatzen du.

Erreka txiki bat ere badugu eta oso zikina zegoen, zabortegia erreka buruan zegoelako. Guraso elkarteak, umeekin batera, toki txiki bat garbitzea proposatu zuen, bertan, nahi zuen guztiak eguna pasatzera joateko. Baina oraindikan ere bada jendea zaborra errekara botatzen duena.

## ERATSUN

ANTTON ERKIZIA

Eratsungo herriak *"bizkar pesta"* batekin ospatu zuen Elizako obren inaugurazioa.

Nahiko hondatua zegoen herriko Eliza, eta denon artean konpontzeko erabakia hartu zuten. Lau edo bost hilabetez, bertako jendeak ezarri du elkarlanean eskulana osoa, eliza moldatu eta txukuntzen.

Herri besta eder batekin egin zuten obren inauguraketa: Beteluko auroroak, Goizuetako dantzariak, bertsolariak... herri osoa ospakizunean eta bazkarian. Cirarda, Iruñeako gotzaia ere han egon zen. Don Klaudio, hainbat urtetan Eratsungo apaiza izanak, ez zuen egoterik izan, baina eratsundarrek gogoan izan zuten bereziki egun hortan.



*Goizuetako dantzariak parte hartu zuten Eratsungo eliza berriaren inaugurazioan*

(Argazkia: MUGIKA)

## EZKURRA

ANTTON ERKIZIA

Datozen herriko pestetan, Ezkurrako herriak omenaldi bat eskeini nahi dio Juan Mari Bengoetxea, Bengoetxea III.ari.

Juan Mari Ezkurrako semea da, "Plazenean" jaioa eta 12 urte arte bertan bizitua, gero familia Leitzara bizitzera joan bazen ere.

Hain xuxen, berriki Iruñeko Labriten eta Leitzan jaso izan du omenaldirik.

Datozen Amabirjinetan bere sorterriak ere egin nahi dio homenajea eta besteak beste, pilota partidu eder bat eta herri bazkaria, lehendabiziko pilotakadak eman zituen pilotalekuan izanen omen dira.

Hurrengo TTIPI-TTAPAN zehaztasun gehiago hontaz.

ANTTON



## GOIZUETA

# Udalaren dirulaguntza Nafarroa Oinez eta Araba Euskaraz-entzako

ESTEBAN AROZENA




*25.000 pezetatako dirulaguntza jasoko du Goizuetako udaletik aurten Atarrabian ospatuko den Nafarroa Oinez-ek*

Ekainaren 16ean Armentia herrian ospatu zen Araba Euskaraz aurtengo edizioak eta heldu den Urriaren 20an Atarrabian burutuko den Nafarroa Oinez-ek Goizuetako udalaren dirulaguntzak jasoko dituzte azken plenoan hartutako akordioaren arabera, hain zuzen, Armentiakoek 20.000 pezeta eta Atarrabiakoek 25.000.

Aurtengo Nafarroa Oinez-i buruz esan, Paz de Ziganda ikastolak antolatzen duela eta bertako ordezkariek diotenez, ikastetxe berri bat eraikitzeari ekin beharrean aurkitzen dira, udalaren Hiri Antolamendurako planen arabera orain arte erabiltzen duten Aita Dominikoen etxea bota beharra bait da. Beraz, euskaltzaleen poltsikoetatik Urriaren 20ean aterako den diru hori non gastatua izanen dute Paz de Zigandakoek.

### Berriz ere txapeldun!!

Ohitura onei eutsi behar zaiela dio esaldi batek, eta aurtengoan ere Goizuetako pilotariek ongi bete dute maxima hori, bosgarren aldiz gure herriak irabazi bait zuen uztailaren 20ean Nafarroako herriarteko pilota txapelketaren finala.

Esan beharra dago, pilotari guziek oso ongi bete zutela beraien papera: irabaztera behartuak zaudenak garbi irabaziz eta "biktima" bezela atera zirenak uste baino tanto gehiago lortuz. Erregularitate honen ondorioz lau partiduak bukatutakoan 10 tanto sobratu zitzaizkion Goizuetari lesakarren kontra jokatutako norgehiagoka eder honetan. Ezin da aipatu gabe utzi, txapelketan parte hartzen zuten herririk ttikienetariko bat Goizueta bada ere, ez duela aurten ere inolako fitxaketarik egiteko premiarik izan, lau kategoriak herriko jokalariekin osatu bait ditu. Era honetara, txapelketaren espirituari eutsi nahi izan diote goizuetarrek, beste hainbat herri edo inongo herririk ordezkatzen ez duten kluben maniobra arraroak gaitsetuz.



**CRISTALERIA VELATE**
IRUGLASS S.L.

- ✓ Eraikuntzak kristaleztatzea
- ✓ Instalazio komertzialak
- ✓ Climalit beira edo kristal isolatzailea (aislantea)
- ✓ Seguritate lunak
- ✓ Kristalera artistikoak
- ✓ Mural ispiluak
- ✓ Grabatuak
- ✓ Etxe barneko dekorazioa
- ✓ Oparitzeko artikuluak

ELIZONDON, Pedro Axular karrika, 1 – Tfnoa: 58 08 25
DONEZTEBEN, Merkaderes karrika, 5 – Tfnoa: 45 09 91

## EZKONTZAK

**Jon Joseba Badiola Aierdi** eta **Rosa Zozaia Agirre,** Leitzakoak, uztailaren 6an.
**Salvador Gillen Corella** eta **Jaione Dominguez Perurena,** Teruel eta Leitzakoa, uztailaren 20an
**Luis Saizar Azpiroz** eta **Inmacula Artola Eraso**, Berastegi eta Aresokoa, uztailaren 20an.
**Miren Sanz Rekarte** eta **Pedro Virto Ursua**, Doneztebe eta Azagrakoa, Uztailaren 20ean.
**Jose Mª Alti Zunda** eta **Josefa Pernaute Inda**, Arizkun eta Zigakoa, Uztailaren 5ean.
**Francisco Latorre Olmo** eta **Mª Teresa Goia Etxebeste**, Alcaudete (Jaen) eta Berakoa, Ekainaren 22an.

## JAIOTZAK

**Ekhine Zozaia Apezetxea,** Lesakan, Uztailaren 14ean.
**Daniel Amestoy,** Saran, Uztailaren 4ean.
**Amaia Izquierdo Agirre**, Beran, Maiatzaren 17an.
**Naiara Trigueros Tomasena**, Beran, Maiatzaren 19an.
**Mikel** eta **Izaskun Agara Martinez**, Beran, Ekainaren 9an.
**Daniel Checa Mayordomo**, Beran, Ekainaren 16ean.

## HERIOTZAK

**Periko San Martin Agerrea**, Donezteben, Uztailaren 22an, 69 urte.
**Vicente Rodrigo Morado**, Beran, Uztailaren 5ean, 50 urte.
**Benigna Amorena Goñi**, Beran, Uztailaren 9an, 79 urte.
**Carlos Eltzaurdia Txantre**, Beran, Uztailaren 13an, 17 urte.

MENDI HOTELA




Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.
Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

# Mikel Laboa: *"Betiko kantak abestuko ditut Berako kontzertuan"*

*Nafarroa Oinez-erako diska - bideoa grabatu ditu beste zenbait euskaltzalerekin batera*



Bere abesti batekin amets edo negar egin ez duen norbait ba ote dago? Izan ere, urte aunitz daramatza Mikel Laboak kantugintzan. Gipuzkoarra sortzez harreman haundiak ditu gure eskualdearekin. Amona Zubietarra, aspaldian hasi zen Arizkun aldera etortzen bere koinadu baten bitartez. Ttikitan, Martzelino Zubietako arotzak (bere osaba ttikia) artzain bakoitzarentzat doinu ezberdinetako joareak egiten zituela ongi gogoratzen du. «*Polita zen joareak egiten ikustea eta oso ona zen hortan*». Abuztuaren lehen egunean Beran eskeiniko duen kantaldia dela eta, Donostiako bere etxera hurbildu gara.

**Nola ikusten duzu zure musikaren eboluzioa "Ez dok hamairu" garaitik gaur egunera?**

Beno, "Ez dok hamairu" baino lehenago, estudiante nintzenean, gazteleraz abesten nuen Atahualpa Yupanqui edo Violeta Parraren abestiak. Zaragozan medizina estudiatzen ari nintzela, Baionako "Museo del disco vasco"k ateratako diska azal gorri bat ezagutu nuen eta «*Ni zer ari naiz gazteleraz kantatzen?*» galdetu nion nere buruari. "Oh, Pello Pello" eta horrelako Euskalerriko kanta tradizionalekin hasi nintzen euskaraz abesten, zenbait kanta "La flor de la Canción popular vasca" liburutik hartuz. Gero, gaurko poetak musikatzen aritu nintzen (Arestiren «Apur dezagun kateak», Artze, Atxaga, Sarrionaindia...). Jarraitu dudan hirugarren lerroa, Lekeitioko linea izan da, «Baga, biga...» kantarekin hasita.

**Belaunaldi gazteenei ere atsegin zaie zure musika. Noizbait "abuelo del punk" deitu dizute...**

Bai, neretzat gauza majoa izan da jende gazteak nere bertsioak ateratzea. Ni harrituta gelditu nintzen

Delirium Tremens taldeak "Baztan" kanta aukeratzea, nere kanta lirikoenetakoa bait da. Interesantea da belaunaldi desberdinek hartuemanak izatea, erreferentzi bat gutxienez historiarentzat. Zentzu honetan, Kortatu taldearekin ere parte hartu nuen kanta batean eta baita Les Mechaniciens taldearen azken lanean ere.

**Euskal kantugintza herrikoia egiten duten abeslari eta taldeekin nolako harremana duzu?**

Normalki bakoitza bere aldetik ibiltzen da jaialdietan. Hala ere zenbaitetan elkartzen gara. Aurtengo Kilometroak-en Ruper Ordorikarekin abestuko dut. La Casillan, orain dela hilabete batzuk, Hertzainak, Ruper eta Oskorrirekin abestu nuen. Gernikan ere elkarrekin abestu genuen Benito Lertxundi eta biok, baina ez da normala, presupuestoa igotzen bait da.

**Kontzertuetan eskeintzen dituzu monologo ulergaitzak eta bereziak: guztiz entsaiatuak dira edo inprobisazioari ere lekua uzten diozu?**

Hori inprobisatua da. Ez dakit hortik etorriko den baina 15 bat urterekin irratia jarri eta inglesez nola aritzen ziren entzutea gustatzen zitzaidan. Ez nuen tutik ulertzen baina hizkuntza bakoitzak badu bere doinua eta Lekeitioko lerroa ere hortan oinarritzen da. Eskuak ere diferente mugitzen ditugu euskaldunak, inglesak edo frantzesak. Baina zuk esaten zenuenari buruz, bai, inprobisatua da. "My darling" eta horrelako hitzak kenduta, auskalo zer esaten duten hor.

*"Lehengo eta oraingo kanta bilduma bat egitea proposatu didate eta horretaz ari naiz hitzegiten argitaletxekoekin"*





*"Hiru lerro nagusi jarraitu ditu nere musikak: tradizionala, gaurko poetak musikatzea eta Lekeitioko linea"*

**Lekeitioak eta horrelako kantekin kuriositatea sortzen da... hau nola egin ote du?**

Gerra denboran baserri baten Lekeition egon ginen ama eta seme-alabak. Aitak Burdeosera aldegin zuen, Donostian PNVko kontzejala bait zen. Geroztik urtero joaten ginen eta hango hizkuntzak oso doinu musikala du. Hortik heldu nion Lekeitioko lineari.

**Zure kontzertuak ez al dira kantaldi-antzerki moduko zerbait?**

Antzerkia asko gustatzen zait. Eszenario batera igotzerakoan derrigorrez egin behar da antzerkia. Zentzu horretan neri ere musika eta mugimendua nahastea gustatzen zait. «Komunikazio-inkomunikazio» bezalako kantetan oraindik gehiago.

**Aspaldian ez duzu diskarik argitaratu. Noizko hurrengoa?**

Orain eskatu didate lehengo eta oraingo kanta bilduma bat egitea eta horretaz ari gera hitzegiten argitaletxekoekin. Kanta berri batzuk baditut baina oraindik diska ateratzeko beste ez. Neretzat zaila da urtero diska bat ateratzea, lasaiago ibiltzea gustatzen zait. Beno, orain aritu gera Nafarroa Oinez-erako diska eta bideo bat grabatzen, iaz egin zutenaren antzerakoa. Hor, gaude Satrustegi, Ibañez futbolaria, Mari Abrego mendigoizalea eta beste zenbait...

**Hortaz, Beran eskeiniko duzun kontzertuan kanta zaharrak nagusi...**

Lehen aipatu dizudan 3 lerroak joango dira eta azkeneko disketatik kanta gehienak. Igual kantatzen ditut aspaldi kantatu ez ditudan abestiak, "Zure begiek" adibidez. "Izarren hautsa" eta horrelakoak bis-ak eskatzen nautenerako dira, eskatzen banaute, je, je...

Ziur gaude Mikel Laboak bis bat baino gehiago abestu beharko duela Beran Abuztuaren 1ean.

AITOR AROZENA

# Goizueta txapeldun Nafarroako Herriarteko pilota txapelketan

*Espero bezala, tanteoak erabaki zuen Lesakaren aurkako finala*

Aspaldiko partez eskualdeko bi herrien artean jokatu zen Ekainaren 20an Nafarroako Herriarteko edo "Interpueblos" pilota txapelketaren XXII. edizioaren finala. Goizueta eta Lesaka aurrez aurre eta sekulako giroa bizi izan zen ordu batzuz Iruñeako Labrit pilotalekuan, baita Goizuetan ere beranduxeago.



Kiroltasuna nagusi: Partiduen ondoren denak elkarrekin argazkirako ANDER O.

Aurretik pentsatzen zen bezala, bina partidu irabazi zituen herri bakoitzak eta tanteoak erabaki behar izan zuen finala. Azkenean, Goizuetak eraman zuen txapela, bostgarren aldiz historian eta Lesakak ezin izan zuen lortu lehen aldikoz hain preziatua den garaipena.

Alebin mailan, errex nagusitu ziren Goizuetako Olaizola eta Loiarte Lesakako Jokin eta Almandoz-i, azken emaitza 18 eta 5 izan zelarik. Olaizolaren sakeak erabaki zuen partidu hau, izan ere 10 tantu lortu bait zituen pilotakada honekin.


Olaizolaren sakeak erabaki zuen ttikienen partidoa

## Infantiletan, Irigoien nagusi

Infantilen partiduan, Irigoien Lesakako aurrelariak bere indarra erakutsi zuen, gibelean Antxordoki zuelarik.

Hala ere, Goizuetako Arozena eta Goizuetari 15 eta 3 irabazten egon ondoren, 18-8 irabaztearekin konformatu behar izan zuten.

## Abantaila ttikiegia jubeniletan

Gehienen ustez jubenilen partidoan erabakiko zen aurtengo finala. Faborito bezala, Almandoz eta Castro lesakarrak atera ziren baina Olaizola eta Berroeta goizuetarrek lor zezaketen tanteoan zegoen koxka.

Hasiera batean lesakarrak nabarmendu ziren (Almandoz pilotari haundia izateko bidean dago) eta 10-1 irabazten hasi ziren. Hala ere, partidoaren bigarren zatian zerbait ernatu ziren goizuetarrak, azkenean 22-13 galduz.



ANDER O.

Goizuetarrek bosgarren aldiz eskuratu zuten Nafarroako Herriarteko edo "Interpueblos" txapelketa




ANDER O.

Jubeniletan, uste baino tanto gehiago atera zituzten Olaizola eta Berroetak lesakarren kontra



# I. Gure Txokoa Igeriketa txapelketa arrakastatsua

Bortzirietako 40 igerilarik hartu zuen parte Uztailaren 20an Gure Txokoa elkarteko igeriketa sailak antolatuta Berako udal igerilekuan kimu, haur eta kadete mailetan jokatutako lehenengo Gure Txokoa igeriketa txapelketan.

Txapeldunak, **Brazan** kimuak Mª J. Perugorria eta M. Altzuri. Haurrak, E. Elgorriaga eta I. Fagoaga. Kadeteak, O. Senper eta G. Errandonea. **Libreka**, kimuak, E. Etxepeteleku eta J.C. Martin, haurrak, E. Elgorriaga eta I. Fagoaga. Kadeteak, O. Senper eta G. Errandonea. **Australiarka**, kimuak, E. Etxepeteleku eta J Martin. Haurrak, E. Elgorriaga eta I. Fagoaga.Kadeteak, O. Senper eta G. Errandonea,

## Lujanbiok erabaki

Lesakaren aldeko 2 eta 1eko emaitzarekin derrigorrezkoa zuten Lujanbio eta Apezetxeak irabaztea haundien partidoan. Taberna eta Otxotekok berriz, 16 tanto ateratzearekin nahikoa zuten txapela eskuratzeko baina ez zuten inolako aukerarik izan eta Lujanbiok bere maixutasuna erakutsi zuen, Apezetxearen laguntzarekin. Azkenean 22-5 eta Goizueta txapeldun 5. aldiz.



## Inaxio Lujanbio

**Goizuetarra, aurrelaria, 29urte. 1. mailako afizionatua**

Zalantzarik gabe infantil eta jubenilak egindako tantoetan egon da finalaren klabea. Bi bikote goizuetarrek pronostikoek zioten baino tanto gehiago atera dituzte eta horrek gure lana erraztudu. Guk 15 tanto arteko marjena izan beharren 6 edo 8takoa bagenuen askoz estuago hasiko ginen eta inork ez daki zer gertatuko zen.

## Joxejabier Taberna

**Lesakarra, atzelaria, 21 urte. 1. mailako afizionatua**



Nire ustez, klabea infantilen partidoan egon zen. Edozein partidu normaletan 3 tantutik behiti utziko zituzten, baino horrelako partiduetan hazi egiten dira goizuetarrak. Jubeniletan ere,uste baino bentaja ttikiagoa ateri zuten eta guk hagitz tanto gutti atera genituen. Zaila da Lujanbio-Apezetxearen kontra jokatzea.

# MERKATU TTIKIA

## Etxebizitzak

• **Beran** ongi moldatutako baserria saltzen dut. 33.000 $m^2$ terrenoa eta 100 $m^2$tako terraza. Karretera generaletik 200 metrotara. Tfnoa: 631348

## Lana

•**OHO-EGB** klaseak emanen nituzke udan. Tfnoa: 45 04 39

• **Edozein** herriko festetan lan eginen nuke, tabernetan, jatetxetan. Deitu 510 285 telefonora.

• **Administraritza** edota euskara klaseak emango nituzke. FPII eta Hizkuntza Eskolako tituloak ditut. Tfnoa: 637948.

•**Udako** bestetan, ostatuetan lan eginen nuke. Tfnoa: 637 052. Lesaka.

•**Euskaraz eta frantsesez** dakien neska bat eskeintzen da jatetxe edo denda batean lan egiteko. Eskerrik asko. Tfnoa: 63 74 10. (Sara).

• **Lesakako** bi neska gara eta gustatuko litzaiguke herriko bestetako ostatuetan lan egitea. Tfnoa: 637872 (1etik 3ak arte).

## Denetarik

•**Gaia** belardenda traspasatzen da. Dagoen bezala hartzen baduzu ganga bat da. Martxan dago bi urtez. Nik atenditu ezin dudalako uzten dut baina lanpostu polita da. Animo. Tfnoa: 63 74 10.

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentzat, bertsolarientzat, elkarteentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu. 631059.

## Salerosketak

•**Ordenadorea** salgai. Inves PCX 10, 3,5eko bi disketerakoa, inprimagailua, WordStar eta mahaia, berri berria.90.000 pzta. Tfnoa:634126, gauez.

• **Ford Fiesta** NA-5459-V egoera onean salgai. 3 urte eta 58.000 kilometrorekin. Tfnoa: 627 542 (Luis Mari).

• **Sukalde** mixtoa salgai, dexente ongi dagoena. Tfnoa: 510059.

•**R-5 GTL** NA-W matrikulakoa salduko nuke. 50.000 kilometro ditu eta egoera oso onean dago. Tfnoa: 63 72 36.

• **1.000** teila plana eta "ordeñadora andadora" salgai. Hagitz merke. Tfnoa: 58 10 23.

• **Artzai** zakurkumeak salgai. Tfnoa: 637 410.

•**Karrera** bizikleta txikia (Razesa) salgai. Tfnoa: 637 317.

•**Anplifikadorea** salgai kitarrarentzat –100 watio– Tfnoa: 637852 (Javier).

• **Kanping denda** familiarra salgai (bostentzako).Tfnoa: 630317.

•**Bi bizikleta** salgai. Bat paseokoa eta bertzea karrerakoa. Merkeak eta egoera onean daudenak. Deitu 637837 tfnora.

• **Idazmakina** berria salgai. Olivetti Estudio 46 markakoa, 29.000 pztatan. Tfnoa: 58 05 70.

• **Kitarra** akustikoa españolaren ordez aldatuko nuke. Tfnoa: 451565

## Harremanak

•**Berako** Josetxo San Juan-entzat. Zure herriko mutil politena zara. Berako bestetan ikustea espero dut. Muxu haundi bat aurpegi eder horretan. M.

•**Legasako** Nekane Etxeparentzat: zu zara zeru urdinetik jauzitako perlarik paregabeena. Musu haundi bat Club Cat Boisen partez.

•**Isa,** Karmele, Enara, Bihotz, Maite, Kristina, Maider, Lierni, Trini eta Amagoiari: Ez larritu festetan... Zuen Romeoak. Leitza.

•**Zugarramurdiko** Mª Fernanda I-rentzat, Urdazubiko mutiko galant bat naiz. Muxu haundi eta iraunkor bat. Agur Marisa, J.ren partez.

•**Ea** ordu kuarto bat nuen galdetu zenidan: bi urte pastu eta nire erantzuna berdina da. Zorionak! Zure pottoki.

• **Berako** Joxemirentzat. Lesakako neska baten partetik zutaz maitemindurik nago. Muxu bat.

• **Arraiozko** Joxe Manuel eta bere maitearentzat. Ezkontza eguna abudo izan dadila. Bere lagunak.

---

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: ..........

..........

..........

..........

***ttipi-ttapa***

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

---

***ttipi-ttapa*** ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK ..........

HELBIDEA ..........

HERRIA ..........

***ttipi-ttapa***

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

# BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

# JAKINARAZTEN DA

1991.eko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

**ORDAINTZEKO ERA:**

***Ordainketak banketxetan helbideratu ez dituztenak:*** Abisuan agertzen den kontura ordainketa eginez edozein banketxetan abisua hirukoiztua aurkeztuz.

***Ordainketak banketxetan helbideratuak dituztenak:*** Udaleko ordainketak helbideratuak dituzten kontutik zuzenean kobratuko zaie.

**ORDAINTZEKO EPEA:**

1991.ko abuztuaren 31an bukatzen da.

Ordaintzen ez bada, epea Irailaren 30a arte luzatuko da, %5aren errekargua aplikatzen ahal delarik.

Epe hau pasatu ondoren premiamenduzko exekuzio bidez %20aren errekarguarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 1991eko Uztailaren 1ean
Mankomunitatearen presidentea

ZABORRA BILDU ETA DESEGITEKO ZERBITZUARENGATIKO TASAK (EREDUA)

☐ ALTA ☐ BAJA ☐ ERREKLAMAZIOA

IZENA ______________________

ABIZENAK ______________________

BIZILEKUA ______________________

HELBIDEA ______________________

N.A.N (DNI) ____________ TEL. ____________

KONTUAREN ZBK. ______________________

ZERGA GAIA ______________________

UDALERRIA ______________________

HELBIDEA ______________________

ARRAZOIA ______________________

Herria eta data ______________________

Sinadura



Berako Udalak besta onak opa dizkizue
Beratar eta bisitari guziei



**OKANE**

***Besta zoriontsuak!!***

**Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt, urdai-azpiko eta bertzelakoetan... sekulako aukera prezio eta kalitatean Zatoz eta proba ezazu!!**

**Beran, Harategi-Urdaitegi berria**

Kanttonberri 4, Tfnoa: (948) 63 00 18 - BERA